

**2014KO MAIATZAREN 7AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia

HILABETEA: Maiatza.

URTEA: Bi mila eta hamalaua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta erdiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Bigarrena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: M^a Mar Celaya González, Alkatearen ordeaz, 2014-04-14ko Ebazpenaren arabera.

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEAK: Koldo Agirre Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bilera bigarren deialdian, hain zuzen ere, ordu bete geroago egin da, lehenengo deialdian quorumik ez zegoelako. Zortziak eta erdian, M^a Celaya, Alfonso Segade eta Josi Insausti bertaratu dira eta Antolakuntza, Funtzionamendu eta Toki Araubidearen Erregelamenduaren 112. artikulua araberan, bigarren deialdian gutxienez hiru kide egotea eskatzen denez, bilerari hasiera eman zaio. Aitor Aldasoro jauna, eskaera eta galdera atalaren aurretik bertaratu da batzarraldira eta une horretan Alfonso Segade jauna ateratu da.

1.- AURREKO AKTA. 2014ko apirilaren 4ko aktaren onespena.

2014ko apirilaren 4ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRAK ESLEITZEA: hilerrian horma-hilobiak berritzeko obren esleipena.

2014-04-29ko Kontratazio Mahaiaren proposamena ezagutzera eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2014ko irailaren 28an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Udal hilerrian horma-hilobiak berritzeko lanak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Licitazio prezioa, 175.987,28 €tan BEZ gabe, finkatu zen eta egikaritze epea 10 aste.

2.- Deialdia, 2014ko martxoaren 6an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitazioa hamabost enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, sei enpresei dokumentazioa osatzeko errekerimendua egin zitzaien eta seiak aurkeztu zuten dokumentazioa eta horren ondorioz enpresa denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Apirilaren 15ean proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA / PRECIO	EGIKARITZE EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN	ZIURTAGIRIAK CERTIFICADOS
1	CONSTRUCCIONES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L Erregistro sarrera zenbakia: 1313	165.732,55	10 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
2	CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETA S.L Erregistro sarrera zenbakia: 1317	150.948,42	10 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
3	CONSTRUCCIONES ALBOKA S.L Erregistro sarrera zkia: 1318	148.974,96	8 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
4	CONSTRUCCIONES HUGAR S.L Erregistro sarrera zkia: 1326	147.160,77	8 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
5	CONSTRUCCIONES UZTURPE S.L	165.018,61	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: ez

	Erregistro sarrera zkia: 1340			
6	ASASER-FERROVIAL Erregistro sarrera zkia: 2901	135.281,42	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: bai
7	JOSE M ^a SUQUIA S.L.U Erregistro sarrera zkia: 1341	162.702,38	10 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
8	LURGOIEN S.A Erregistro sarrera zkia: 1342	146.155,51	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: bai
9	CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.A Erregistro sarrera zkia: 1343	129.098,30	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: ez
10	URBYCOLAN Erregistro zkia: 1344	143.871,31	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: ez
11	GABIKA EXCAVACIONES Erregistro zkia: 1346	136.509,79	12 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
12	EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.L Erregistro zkia: 1380	129.024,09	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: bai
13	INDENORT PV S.L Erregistro zkia: 1381	139.999,17	10 aste	Euskara: ez Bedintasuna: ez
14	CAMPEZO & RESO Erregistro zkia: 1382	150.629,96	10 aste	Euskara: bai Bedintasuna: bai
15	SASOI ERAIKUNTZAK S.L Erregistro zkia:1400	125.407,82	8 aste	Euskara: bai Bedintasuna: ez

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira

a) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 + 1,25 \times ((A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} - B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) / 1000$

b) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzten.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

c) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakuaren sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten dituzten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobernu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi da batzuk euskera sustatzeko nahiz emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiriak aurkezten dituela.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaiak erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea.

Gertatzen dena da, prezio merkeena aurkezten duen, SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresaren proposamena besteeikiko desproporzionatua dela (ikus honekin batera doan 2014-04-16ko txosten teknikoa). Hori dela eta bere eskaintza justifikatzeko eskatu zitzaion 2014-04-24a baino lehen.

Errekeritutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, 2014ko apirilaren 30eko txosten teknikoaren arabera, SASOI ERAIKUNTZAK, S.L. enpresaren eskaintzak balioa du.

Lizitazioan parte hartzeko onartutako eskaintzak baloratzerakoan, eta zehazki formula aplikatzerakoan zalantza sortu da, "eskaintza" kontzeptuan BEZ sartuta den ala ez.

Udal aparejadorearen aurkako iritziarekin eta Madrilgo Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Batzordearen ekainaren 10eko 3/2009 txostenak aipatzen duen Estatuaren Kontratazio Batzordearen 2008ko uztailaren 28ko 43/08 txostenaren arabera, kontratuaren lizitazioa fasean (proposamenak irekitzea), BEZ ez dago sartuta.

Beraz, lizitazioan parte hartu duten beste enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

J.M. BARANDIARAN PARKEA URBANIZATZEKO ETA JOLAS GUNEARI ESTALKIA JARTZEKO LANAK
 APERTURA DE PLICAS: OBRAS DE REFORMA DE NICHOS EN EL CEMENTERIO MUNICIPAL

Espe Kodea Nº Expte **2014PROB0001**
 Epea - Plazo (aste - semanas) **10**

INARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE **175.987,28** EKINTZA PUBLIKOIA
 BEZ - IVA **21%** ACTO PUBLICO
 BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA **36.957,33**
 OROTORA - TOTAL **212.944,61**
 BATEZ BESTEKO BEHERAPEÑA - BAJA MEDIA **-17,55%**

ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	HURBUKIDEA, Nº ORDEN	HURBUKIDEA, Nº ORDEN	ESKAINZAILEAK - OFERTANTES	ONARRI-ESKAINZA - OFERTA BASE	BEZ - IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	OROTORA - TOTAL	PLAZO (hilabete - mese)	% Subcontratación	ESKAINZA BEHERAPEÑA CON LIZITAZIOA NEURRICIATZIOAN	BEZ ZENBATEKOA KONTRATATZIOAN NEURRICIATZIOAN	ESKAINZA BEHERAPEÑA KONTRATATZIOAN NEURRICIATZIOAN	BATEZ BESTEKO BEHERAPEÑA KONTRATATZIOAN NEURRICIATZIOAN	ONARRI - BEHERAPEÑA KONTRATATZIOAN	PUNTUATZIOAN	ESKUBIA	ISUMATZIOAN	SINIA TOTAL
ESKAINZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS	1		ASASER & FERROVIAL	135.281,42	21%	28.409,10	163.690,52	10	14,44%	-23,130001%	-5,579712%	-6,767412857	-3,546185287		77,66	5	5	87,66
	2		CAMPEZO & RESO	150.629,96	21%	31.632,29	182.262,25	10	25,84%	-14,408610%	3,141679%	3,8110418845	7,397115228		58,47	5	5	68,47
	3		CNES ALBOKA S.L.	148.974,96	21%	31.284,74	180.259,70	8	13,37%	-15,349018%	2,201270%	2,669834042	6,217122711		60,54	0	0	60,54
	4		CNES HUGAR S.L.	147.160,77	21%	30.903,76	178.064,53	8	<30 %	-15,379883%	1,170406%	1,419539454	4,923629886		62,81	0	0	62,81
	5		CNES ITURRIOZ S.A.	129.098,30	21%	27.110,64	156.208,94	10	26,80%	-26,643391%	-9,093103%	-11,02866525	-7,954665852		85,39	5	0	90,39
	6		CNES PEDRO IPARRAGUIRE S.L.	165.732,55	21%	34.803,84	200.536,39	10	29,49%	-8,26972%	11,723317%	14,21874793		39,59				
	7		CNES URBYCOLAN S.L.	143.871,31	21%	30.212,98	174.084,29	10	2,30%	-18,249029%	-0,698740%	-0,847474494	2,578289592		66,92	5	0	71,92
	8		CNES UZTURPE	165.018,61	21%	34.653,91	199.672,52	10	no sabe	-6,232649%	11,317640%	13,72671825		40,49				
	9		EXCAVACIONES GABIKA S.L.	136.509,79	21%	28.662,06	165.176,85	12	12,15%	-22,432013%	-4,881724%	-5,92085083	-2,670374164		76,12	0	0	76,12
	10		EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.L.	129.024,09	21%	27.095,06	156.119,15	10	11,17%	-26,685559%	-9,135270%	-11,07980803	-8,007576574		85,48	5	5	95,48
	11		INDENORT PV. S.L.	139.999,17	21%	29.399,83	169.399,00	10	19,19%	-20,449268%	-2,898979%	-3,516056994	-0,182493626		71,76	0	0	71,76
	12		JOSE MARIA SUQUIA S.L.U.	162.702,38	21%	34.167,50	196.869,88	10	6,58%	-7,548784%	10,001505%	12,13043019		43,38				
	13		KOLDO KEREJETA S.L.	150.948,42	21%	31.699,17	182.647,59	10	no sabe	-14,227653%	3,322636%	4,029893549	7,624172882		58,07	0	0	58,07
	14		LURGOIEN	146.155,51	21%	30.692,66	176.848,17	10	18,19%	-16,951094%	0,599194%	0,726739286	4,206893162		64,07	5	5	74,07
	15		SASOI ERAIKUNTZAK	125.407,82	21%	26.335,64	151.743,46	8	8,15%	-28,740407%	-11,190118%	-13,5720522	-10,58592796	Baja temeraria		90	5	0

BATEZ BESTEKO ESKAINZA (15 ESKAINZA)		
OFERTA MEDIA (15 OFERTAS)	145.101,00	175.572,21
Eskaintza kopurua - Número de ofertas	15	
*(1) ESKAINZA NEURRIGABEAK - OFERTA DESPROPORCIONADA		
BATEZ BESTEKO ESKAINZA (12 ESKAINZA)		
OFERTA MEDIA (12 OFERTAS) <i>Ofertas sombreadas en azul</i>	140.255,13	169.708,70
Eskaintza kopurua - Número de ofertas (Eliminando ofertas que superan el 10 % de la media). OFERTAS SOMBRADAS EN AZUL	12	

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Udal hilerrian horma-hilobiak berritzeko lanak, EXCAVACIONES Y OBRAS DE DIEGO S.Lri esleitzea 129.024,09 €ko prezioan gehi BEZ. Egikaritze epea, hamar astekoa izango da.

Bigarren. Baldintza plegu administratiboaren 19. artikulua arabera, Azpikontratutako partiden ordainketa, Administrazioak zuzenean egingo die azpi-kontratastei. Horren ondorioz, kontratuaren esleipendunak automatikoki endosoak egin beharko ditu horien alde. Endosoak, ziurtatutako obra zatiari dagokion fakturen kopiekin batera aurkeztuko dira.

Hirugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharreran eta gizarte segurantzaren eguneratuta egotearen agiriak.
- 6.451,20 €ko behin betiko fidantza eratzea.

Laugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- OBRAK KONTRATATZEA

- Alkartasuna Lizeoan leihoak aldatzea.

Ezagutzera eman da, 2014ko maiatzaren 5eko hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

Lehenik. Udal aparejadoreak idatzitako eta 2014ko urtarrileko data duen, Alkartasuna Lizeoan leihoak aldatzeko buruzko obra-proiektua onartzea.

Bigarren. Deialdi publikoa egitea, Alkartasuna Lizeoan leihoak aldatzeko buruzko proiektuaren obrak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko, baldintza plegu administratiboa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publikitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 99.007,71 € BEZ kanpo, 119.799,33 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 6 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 600.000,00 €ko aseguruaren egiaztapena.
- b) SOILIK azken bost urtetan gauzatutako obren zerrenda, gauzapean oneko ziurtagiriz bermatuak, zenbatekoak, datak eta obrak non gauzatu diren bertan adierazita.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- a) Proposamen ekonomikoa 75 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, alde zuzenetik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 75 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 75 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren kopurua} / B \text{ eskaintzaren kopurua}) * 100))$.

- b) Epea: 15 puntu
- c) Euskera: 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola “BAI EUSKARARI”, “BIKAIN” edo antzeko izaera dutenak

d) Berdintasuna: 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten dituzten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobernu Estatalak edo EMAKUNDEK emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailerek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Idazkariak ohartarazi du hirigintza batzordean esandakoa, hau da: euskara eta berdintasun irizpideei ematen zaien kontsiderazioak kontratuaren helburuarekin zer ikusi zuzena ez dutela eta horren ondorioz konkurrentzia irizpidearen aurkako diskriminazio klausula aurreikusten dela Pleguan.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

- Murumendi ikastetxean berrikuntza-obrak (lehen ekitaldia) egitea.

Ezagutzera eman da, 2014ko maiatzaren 5eko hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

Lehenik. ASTAZALDI ARK, S.L.P.ek idatzitako eta 2014ko martxoaren data duen, Murumendi ikastetxean berrikuntza obrak (lehen ekitaldia) egiteko proiektua onartzea.

Bigarren. Deialdi publikoa egitea, Murumendi ikastetxean berrikuntza obrak (lehen ekitaldia) prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko, baldintza plegu administratiboa onartuz.

1.- *Prozedura*: irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea*: arrunta

3.- *Lizitazio prezioa*: 138.519,40 € BEZ kanpo, 167.608,49 € BEZ barne.

4.- *Egikaritze epea*: 8 aste.

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

- c) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 600.000,00 €ko aseguruaren egiaztapena.
- d) SOILIK azken bost urtetan gauzatutako obren zerrenda, gauzapean oneko ziurtagiriz bermatuak, zenbatekoak, datak eta obrak non gauzatu diren bertan adierazita.

6.- *Espedienteak*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen ereduak*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa 75 puntu

Atal honetako balioespena egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, alde aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

- 3. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.
- 4. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 75 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

B ESKAINTZAREN PUNTUAKETA = $75 - (100 + ((1 - (A \text{ eskaintzaren kopurua} / B \text{ eskaintzaren kopurua}) * 100))$.

- Epea: 15 puntu.

- Euskera: 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkezten badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola “BAI EUSKARARI”, “BIKAIN” edo antzeko izaera dutenak

- Berdintasuna: 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko kreditatzen duen ziurtagiria aurkezten dituzten eskaintzei 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobernu Estatalak edo EMAKUNDEk emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Idazkariak ohartarazi du hirigintza batzordean esandakoa, hau da: euskara eta berdintasun irizpideei ematen zaien kontsiderazioak kontratuaren helburuarekin zer ikusi zuzena ez dutela eta horren ondorioz konkurrentzia irizpidearen aurkako diskriminazio klausula aurreikusten dela Pleguan.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

4.- HAUTESKUNDE PANELAK. Hauteskunde panelen banaketari buruzko proposamena.

Ondorengo proposamena azaldu da:

Talde politikoak:

1.- EH Bildu 2.- EAJ-PNV ; 3.- PSOE ; 4.- PP ; 5.- UPyD ; 6.- BESTEAK

- **Igartza Oleta, 10 zk.aren parean** / Frente a Igartza Oleta 10

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Dolarea kalea, parkearen parean** / Calle Dolarea, frente al parque

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Barrendain plaza** / Plaza Barrendain

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Urbieta eraikinaren ondoko zubiko barandan** / Barandilla puente próximo al edificio Urbieta

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Ezkiaga etorbidea 18 zk.aren parean, errekaen barandilan** / Frente a Ezkiaga etorbidea 18 en barandilla río.

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Bideluze zubiko baranda** / Barandilla del puente de Bideluze

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Mariarats-Arantzazu**

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

- **Barandiaran parkearen goialdean** / Parte arriba parque Barandiaran

1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Une honetan Aitor Aldasoro (EAJ) jauna sartu da batzarraldira eta gai-zerrendako gaiak azaldu zaizkio.

Bide batez, Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE), batzarraldia utzi egin du.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), gai-zerrendako lehenengo puntuekiko adostasuna azaldu du. Hauteskunde-panelen gaiaren inguruan adierazi du, hauteskunde-panelen banaketari buruzko proposamenarekin ados dagoela, baina Lehenengo Alkateordeari galdetu dio ea konpromisorik hartzen duen, propaganda bakarrik toki horietan jartzeko eta horietatik kanpo jartzea ez baimentzeko edota kentzeko. Herria kartelez beteta dagoela dio eta dagoen ordenantza ez dela betetzen. Ordenantzarekin ados egon ez ezkerro, aldatu egin beharko litzakeela dio.

M^a Mar Celaya andreak (BILDU), esan du berak ezin duela horrelako konpromisorik hartu. Kentzekotan, tokiz kanpo dauden kartel guztiak kendu egin beharko liratekeela dio eta ezagutzera eman du, astearte eta ostegunetan erretiratzen direla kalean dauden kartelak.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ), San Martingo basilizan azaldutako pintaketa aipatu du "ERNAI" jartzen duena eta esan du zerbait egin dela desagerrarazteko, baina oraindik ikusi egiten dela.

M^a Mar Celaya andreak ihardetsi dio esanez Elizari tokatzen zaiola kentzea, fatxada hori ez delako Udalarena.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) dio, pintadak kentzeko betidanik egon den dirua kentzeko saiakera egin zela, baina M^a Mar Celaya andreak erantzun dio ez zela saiakera egin kentzeko, baizik eta diru kopurua erdira murriztu zela.

M^a Mar Celayak deituta, Zerbitzuburuak azaldu du fatxadaren arabera pintadak kentzeko tratamendua ezberdina dela: fatxada margotuta badago, pintura erabiltzen da, baina fatxada harrizkoa bada, ur-txorroa eta inpregnazioa erabiltzen da.

Aitor Aldasoro jauna eskatuta, Zerbitzuburuak adierazi du saiakera egingo dutela San Martin basilizan dagoen pintada desagerrarazteko eta Josi Insausti jaunak eskatuta, horren kostua zenbatekoa den kalkulua egingo duela dio.

Aitor Aldasoro jaunak ezagutarazi du, Porterian ere une batzuk zikinduta daudela.

Zerbitzuburuak azaldu du, kartelak kentzerakoan kontutan izaten dela noiz jarri diren eta iragartzen duen ekintza noiz den. Adibidez, kartela astelehenean jarri bada eta aste bururako ekintzen baten berri ematen badu, utzi egiten da, ekintza hori burutu.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko bederatziak eta bost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.